

FUNTZIONAMENDU ARAUAK ERREHABILITAZIOA 0 solairua B pabiloia

Errehabilitazioko Zerbitzuko profesionalok osatzen dugun taldeak zure osasun-arazoaren eragin pean dauden funtzioak berreskuratzea du helburu. Hori lortzeko, zure laguntza emango diguzulakoan gaude.



Gure taldean ondokoek hartzen dugu parte: mediku espezialistek (mantal zuria), fisioterapeutek (uniforme urdina), erizaintzako laguntzaileek (uniforme arrosa) eta osasun-laguntzaileek/zeladoreek (uniforme zuria).

Espezialistak agindutako programa behar bezala eraman ahal izateko, esandako **ordua zehatz bete beharra dago.**

Terapia-saiora etortzerik ez baduzu, ondoko telefonora deitu behar duzu: 945 00 79 98. Arrazoirik eman gabe hiru aldiz huts eginez gero, alta jasoko duzu.

Komenigarria izaten da gimnasia arropa egokia eramatea. Aholkuren bat behar izanez gero, bertako pertsonalak emango dizu. Bestalde, **garbitasuna arduraz zaindu behar duzu.**



Zerbitzuko taldearen baimena eraman ezean, pazienteak lagunik gabe sartu behar du gimnasioan.

Ez da komenigarria izaten balio handiko gauzak ekartzea, eta sakelako telefonorik edo irratirik gainean eramanez gero, itzali egin behar dira; izan ere, elektromedikuntzako ekipoentzat traba gerta daitezke.

Larruazaleko arazoren bat baldin baduzu, fisioterapeutari edo erizaintzako laguntzaileari esan behar diozu.

Kontsultaren bat edo erreklamazioaren bat egin nahi izanez gero, zerbitzuko gainbegiralearengana jo behar duzu.

Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).

Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

LASTER ETA ERABAT SENDATZEA OPA DIZUGU

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.